



**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

# **JESUS, GURE ADISKIDEA**

## **ERANSKINA**

**KATEKISTA, ERAGILE, AITA ETA AMENTZAT**

**Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**

# ERANSKINA KATEKISTA, ERAGILE, AITA ETA AMENTZAT

## "JESUSEZ DAKIGUNA" <sup>1</sup>

**Zein sekretu ezkututzen du Nazareteko Jesusek historian zehar milioika lagun liluratzeko?** Nor izan zen mendebaldean eta munduko beste hainbat lekutan erlijioan, kulturaren, bizikidetzan eta artean hain erabakigarria izan dan gizon hau?

Seguruena inork ez du berak besteko ahalmenik izan bihotzen gainean; inork ez ditu berak bezala adierazi gizakiaren kezka eta galderak; inork ez du berak adina itxaropen piztu; inork ez da hain maitatu eta gorrotatua izan... Zer dela-eta ez da bere izena ahaztu? Zer dela-eta, gaur egun ere, ideologia eta erlijioek krisi sakona jasaten dutenean, irauten dute bizirik Jesusek eta bere mezuak, milioika lagunen fedea sustatuz? Zer dela-eta erakartzen eta interpelatzen ote gaitu geu ere?



### **I. Biografia laburra**

Augusto enperadorearen erregealdian jaio zen, Kristo aurreko (K.a.) 4. urtean gertatu zen Herodes Handiaren heriotzaren aurretik, seguruena K.a.ko 6 eta 4 urteen artean. **Nazareten hazi zen eta Jose eta Maria izan ziren bere gurasoak.**

**Galilean mintzaten zen dialektoa, aramera, ikasi zuen gurasoengandik.** Hebreera, garaiko hizkuntza landua, tenpluko liturgian eta sinagogetan erabiltzen zena, ere ezagutzen zuen, badirudi grekoa ere hitz egiteko gauza zela eta jakinekoa da latina ez zuela erabiltzen, erabat arrotz zuela.

**Bere bizitzako urte gehienak Galileako ingururik menditsuenean zegoen Nazareten igaro zituen,** merkataritza-bide nagusienetatik urrun. Jarduera profetikoari ekin arte, ez zituen bere garaiko hiri nagusiak ezagutu.

Bere pentsamoldea, landatarra zen. **Aitak eraikuntza-lanetako maisu lanbidea irakatsi zion.** Jose arotz bezala ezagutu izan badugu ere, eraikuntza-lanetako maisu izan zela ematen du, hau da eraikuntzarako askotariko lanak egiteko gauza zen gizona.

### **Erabateko aldaketa bizimoduari dagokionez**

**Jesusek, Joan Bataiatzaileak Jordan ibaiaren inguruko basamortuan garatzen ziharduen egitasmoaren berri jaso zuen.** Nazaret utzi zuen, denboraldia eman zuen Joanen elkarteekin eta ez zen senideengana itzuli. Hala ere, ez zuen Joani lotuta iraun. Bataiatzailearen atxiloketaren ostean, Jesusek pausu bat aurrera eman eta jarduera profetikoari ekin zion. Baina, Joanek bihotz-berritu beharra hots egiten zuen bitartean, Jesusek lagun hurkoarenganako maitasuna eta barkamena hots egiten ditu.

Familiak ez zuen guztiz ulertu bere bizimodua. Erotuta zegoela eta bizimodu harekin ohorea kentzen ziela ere pentsatu zuten. Jesus, **Nazaret utzi eta Kafarnaumera joan zen eta han jarri bizitzen.** Apurka-apurka, senideetako batzuk bat egin zuten bere egitasmoarekin eta Maria bere amak gurutzeraino lagundu zion Jesusi

Jesusek fede judua jaso zuen gurasoengandik eta ez zuen judaismoa alde batera uzteko, eta are gutxiago, erlijio berria sortzeko asmorik. Jesusek Jainkoaren erreinuaren eraikuntzan lankidetzara eraginkorra izatera ditu zuen jendea.

<sup>1</sup> [1] 'Etorri eta ikusi!' 2. kurtsorako gida pedagogikoko 4. kaitik hartuta. Katekesirako Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Ordezkaritza eta Idazkaritzek argitaratuta, 211.

# ERANSKINA KATEKISTA, ERAGILE, AITA ETA AMENTZAT

## III. Jarduera ibiltaria

**K.o.ko 27 edo 28an ekin zion Jesusek jarduera profetikoari.** Hasieran, Palestinako urrutiko lekuetan jardun zuen. Apurka-apurka, pausuz pausu, arriskuak hartu eta, azkenean, **Jerusalemera joatea erabaki zuen. Hementxe hil zuten, seguruenik K.o.ko 30.eko apirilaren 30ean.**



Zaila da Jesusen ibilbidea berregitea. Itxura guztien arabera, Joanen elkarteak utzi eta Galileako lakura abiatu zen, bertan bere elkartearen muina eratzeko. Batik bat, Palestinako landa-eremuetan garatu zen bere jardunbidea eta, aldi batez, Kafarnaum bihurtu zen jarduketa-gune nagusi. Jarduera profetikoaren hastapenetan inguruko hiri handietara ez zela hurbildu da bitxia. Jarraitzaileen taldea lagun zuela ibili zen hara eta hona eta **gaixoen sendaketa eta lagun hurkoarenganako maitasun eta barkamenean oinarritutako Jainkoaren Erreinuaren iragarpena oinarritzat hartuta garatu zituen bere jarduerak.** Aparra bezala hazi zen bere ospea eta jendetzak mugitzeko gauza izan zen.

## IV. Jesus Profeta

**Jainkoaren Erreinuaren iragarpena da Jesusen jarduera profetikoaren ardatza.** Jesus, fede juduan hezi zen, baina bere hitzak urteetan zehar esperimentatu izan zuen jainkoarekiko harreman pertsonal sakonetik sortu ziren. Jainkoaren inguruan bizi izan zuen esperientzia apurtzailea izan zen; izan ere, ordura arte Jainko epaile eta zorrotza hots egiten zen tenplu eta sinagogetan eta Jesusek **galduta zeuden alaba eta semeen bila ziharduen, Berarengana itzultzen zirenak ezer aurpegiratu gabe onartu egiten zituen Jainko Aitaren** inguruan jarduten zuen mendi eta kaleetan. Jainko errukitsua aurkeztu zuen Jesusek, eta etsaiak ere barkatzeko eskatu zien entzuleei.

Jarduera profetikoan, Jesusek jendetzak mugiarazi zituen. Jendea erakartzeko eta biltzeko zuen gaitasun hori ez zen oharkabe pasatu garaiko agintarientzat. Saduzearrek eta farisearrek aho betean kritikatu zuten, **gizarteko baztertuekin hartu-emana zuelako eta erlijio juduaren arau eta ohikuneak behin eta berriz hausten zituelako.** Erromatar inbasoreen aurkako gerrara deituko zituen Mesias espero zuten Zelotek eta guztiak, baita etsaiak ere, barkatzea ezinbestekoa zela hots egiten zuen gizona izan zuten aurrez aurre

## V. Jesus Sendatzaile

**Jesusek jarduera sendatzailea gauzatu zuen eta garaiko herritarrek mirarizko jardueratzat zuten.** Gaixotasunak bazterketa eta kanporatzea zekarren jasaten zutenentzat; tenpluan, ezabatu egiten zituzten gaixoen izenak. Familietatik kanpo geratzen ziren gaixoak, lohitzat jotzen zituztelako. Gaixotzen zenak Jainkoaren zigorra jasotzen zuela uste zen. Norbaitek gaixo bat ukitzen bazuen, lohিতuta geratzen zen. **Jesusen garaian, gaixoak eskale bihurtzen ziren, gizarteko azkenak ziren. Jesusek, bere jarduera sendatzailearen bidez, gaixoak aurreneko bihurtzen ditu,** lohikeriaren tabu guztiak apurtu eta gaixoak bertan behera uztea ez dela Jainkoaren nahia salatu zuen..



# ERANSKINA

## KATEKISTA, ERAGILE, AITA ETA AMENTZAT

### VI. Jesusek legeak gainditzen ditu

Jesusek bere garaiko arau eta legeak hautsi egin zituen. Bere esanetan, legeak pertsonen esanetara daude eta ez alderantziz. Ez zuen erritu-garbikundeari lotutako araurik bete eta larunbataren inguruan ezarritako legeak hautsi egin zituen. Eskalez, gaixoez, zerga-biltzailez eta bekatariz inguratuta bizi izan zen. Emakumeak berdintzat hartu zituen eta bere taldean onartu. Hurrei ere berarengana hurbiltzen utzi zien. Emakume eta hurrekiko hartu-eman hori ez zen kasualitate hutsa izan, biak ala biak jabetza hustzat hartzen zituzten-eta. Beste behin ere, bere jarrerarekin, Jesusek gizaki guztien duintasuna aldarrikatzen du.

### VII. Jesus hil egiten dute eta Jainkoak berpiztu egiten du

Bere hitz egiteko eta bizitzeko erak, Jainkoa eta bere Erreina hots egiteko erak, egundoko gatazka sortu zuen eta herriko agintariak Jesusen aurka egin zuten. Ondorioz, heriotzara kondenatu zuten. Juduek heriotza zigorra ezartzeko ahalmenik ez zuten, apaizek Pilatoren (erromatar inperioko ordezkaria) esku utzi zuten eta honek gurutzean hiltzera kondenatu zuen. Erromatar herritartasuna ez zuten eta ezarritako ordenaren («pax romana») aurkako delituak egiten zituztenak gurutzean josita hiltzera kondenatzen zituzten.

Dena bukatuta zela zirudienean, Jesusen auzia martxan jarri zen. Jainkoak Jesus hilen artetik berpiztu egin zueneko uste sendoak, Hark hots egiten zuenaren egia baieztatuz, eta Espirituari egotzitako gar espiritualak mugimendu erlijioso berriaren hasiera ekarri zuten. Laster erakarri zituen jarraitzaile berriak. Jesusen heriotzatik hil gutxitara Jerusalem lehenean kristau elkarteak sortu zela agertzen duten frogak daude.

Uste sendo hau gaur egunera arte iritsi da eta bi mila urtez askotariko kulturetako milioika gizon eta emakumeren bizitza zentzuz bete du.

**Entzuteko**  
**"Sentarnos a tu mesa",**  
**Salomé Arribicita**

